

# DINOSAUROEN INBENTARIOA (Irudiduna)

Testua: VIRGINIE ALADJIDI

Irudiak: EMMANUELLE TCHOUKRIEL

Itzulpena: MIKEL TABERNA IRAZOKI

Azal gogorrean egina. 21,5 x 30 cm. 72 or. 17 €.

**Dinosauroen Inbentarioa (Irudiduna)** (euskara)  
ISBN 978-84-9172-039-3. Kalandraka - Pamiela etxea. Zientzia.

**Inventario ilustrado de dinosaurios** (gaztelania)  
ISBN 978-84-16721-18-4. Factoría K de Libros. Ciencia.

**Inventario ilustrado de dinosauros** (galegoa)  
ISBN 978-84-16721-19-1. Factoría K de Libros. Ciencia.

**Inventari il·lustrat dels dinosaures** (katalana)  
ISBN 978-84-16804-44-3. Factoria K de Llibres. Ciència.

**Inventário ilustrado dos dinossauros** (portugesas)  
ISBN 978-989-99583-5-7. Factoria K de Livros. Ciências.

*Orain dela 230 milioi urte, dinosaurioak agertu ziren.*

*Zenbaiten iritziz, meteorito baten erorketak eragin zuen, neurri batean, haien desagertzea; gaur egun Mexiko dagoen tokian izan zen, orain dela 66 milioi urte.*


*Erabat desagertu ote ziren? Ez dirudi hala izan zenik: gaur egungo hegaztiak haien ondorengoak dira...*

Bizia Lurraren gainean orain dela 4.300 milioi urte sortu zela ikasiko dugu "Dinosauroen inbentarioa irudiduna" honen hasieran, eta jarraian bizidunen historiaren mugarririk batzuk aipatzen zaizkigu, sorrera hartatik gaur egun arte. Liburuan 47 dinosaurio espezie azaltzen dira, garai geologikoen arabera banaturik: Triasikoa, eta orduko *Mussaurus patagonicus*, adibidez; Jurasikoa, non agertzen zaigun *Diplodocus carnegii*, besteak beste; eta Kretazeoa, *Tyrannosaurus rex*-en garaia.

Parisko historia naturalaren museo nazionalan ari den Claire Peyre de Fabrègues Paleontologian doktoreak, hari egindako elkarrizketan, azaltzen ditu arlo honetan 90eko hamarkadatik hona teknologia berriei esker izan diren aurrerapenak. Esate baterako, dinosaurio batzuek lumak zituztela jakitea lortu da -hortik dator haien ahaidetasuna hegaztiekin-, eta hori oso aurkikuntza garrantzitsua izan da.

Oso urrun gelditu dira Richard Owen britainiar ikertzailearen lehenbiziko fosilen aurkikuntzatik ondorioztatu ziren ezagupenak. Gaur egun arte 700 dinosaurio espezie aurkitu dira, baina zenbaki hori dezente handitu liteke: "oraindik ere espezie kopuru handia gelditzen da aurkitzeko", adierazi du Claire Peyrek.

Liburu honek irakurle txikien -eta ez hain txikien- jakin-mina suspertuko du, eta haietako batzuk, nork daki, beharbada etorkizuneko paleontologoak, laborategiko teknikariak edo artekari zientifikoak izanen dira; izan ere, hemen badituzte horretarako balioko dieten hainbat datu, dinosaurio ezagunen saillapen, aurkikuntza eta deskribapenari buruz. Irudiak antzinako landa-kaieretakoen estilora egin ditu Emmanuelle Tchoukriel-ek. Eskeletoen azterketa, irudi zientifikoak eta birsortutako animaliak oinarritzat hartuz, marrazkilarik bere interpretazio artistikoa egin du.



- **Gala:** 47 dinosaurio mota biltzen dituen katalogoa.
- **Adin gomendatua:** 6 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** irudi-orri bakoitzean, marrazkiak, izen zientifikoa, saillapena eta deskribapena; dinosaurioak non ikusi Liburu honek sail berri bati hasiera ematen dio. Segidan beste "inbentario" batzuk etorriko dira euskaraz: animaliak, loreak, zuhaitzak, intsektuak, hegaztiak, itsasoak...

## Virginie Aladjidi


Hainbat urtez gazteentzako aldizkarietan eta argitaletxeetan aritu da. Gaur egun, liburu eta testu bildumak sortzen ditu, Caroline Pellissier lankide duela.

<http://virginiealadjidi.blogspot.com>

## Emmanuelle Tchoukriel

Arte Aplikatuaren ikasketak egin zituen eta ikusizko komunikazioaren arloan osatu zuen bere formakuntza, Parisko Estienne Eskolan sartu eta irudigintza mediko eta zientifikoan espezializatu baino lehen.

<http://tchouk-tchouk.blogspot.com>



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea  
soltxate@pamiela.com